



## HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO HEZITZAILEENTZAT FORMAZIO-HITZALDI IREKIAK

Kaixo, lankide,

Mezu honen bitartez **STEILAS** sindikatuak burutuko dituen "*Haurreskolak Partzuergoa: argibideak eta jakin beharrekoak*" formazio-hitzaldi irekien berri eman nahi dizuegu.

Izan ere, asko zarete guregana jotzen duzuen hezitzaileak, finko zein ordezeko, hortaz, ohikoak diren zalantzak argitzen saiatuko gara saio horietan. Besteak beste, gai hauek landuko ditugu:

- Haurreskolak Partzuergoa eta bere izaera.
- Haurreskolak Partzuergoko prozesu ezberdinak: izen-ematea, baremazio prozesua, esleipenak, leku-aldatze lehiaketa...
- Haurreskolak Partzuergoko Lan Hitzarmena.
- Haurreskolak Partzuergoko Ordezkoen Araudia.
- Haurreskolak Partzuergoko Jarraibide Orokorren liburua.
- Haurreskolak Partzuergoko web gunea.
- Norberak lekarkeena.

Saioak **STEILAS** Hezkuntza sindikatuaren egoitzetan burutuko dira, data eta ordutegi hauetan:

<b>STEILAS</b> Gasteiz (Eulogio Serdan kalea, 5)	<b>STEILAS</b> Bilbo (Jose Maria Eskuza kalea 1, 1. Esk.)	<b>STEILAS</b> Donostia (Baso Txiki kalea 30-34, atzekaldea)
2021eko azaroak 16, 17:30ean	2021eko azaroak 17, 17:30ean	2021eko azaroak 18, 17:30ean

Izen ematea hilaren 9tik 14ra bitarte egongo da zabalik (biak barne). Saioak irekiak izango direnez, izena ematea ezinbestekoa izango da aforoa zaindu ahal izateko. Lotura honen bitartez eman dezakezue izena:

<https://labur.eus/uYKtK>

Parte-hartzearen arabera, saio gehiago egiteko aukera baloratuko dugu. Zalantzarik izanez gero, jar zaitezte gurekin kontaktuan ohi bezala, konfiantza osoz.

**steilas**

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus

